

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

OGASUN ZUZENDARITZA

Data ezartzea hirugarren perituen zerrenden zozketa publikorako

Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren, Arabako zergenaren, 129.3 artikuluan, abenduaren 30eko 66/2003 Foru Dekretuaren, Ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren Araudia onartzen duenaren, 34.5 artikuluan eta azaroaren 29ko 74/2006 Foru Dekretuaren, Jaraunspen eta dohaintzen gaineko zergaren Araudia onartzen duenaren, 26. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, erabaki da 2020ko otsailaren 19ko 13:00etan, Ogasunaren eraikineko liburutegian (Samaniego kalea, 14, bosgarren solairua, Vitoria-Gasteiz), jendaurreko zozketa egitea. Horrela, balioztatu beharreko ondareen edo eskubideen arabera prestatu diren zerrenda bakoitzean, legez onartutako profesionalen elkargoek igorri dituztenetan, hirugarren peritu lanetan jarduteko elkargokide edo bazkidea hautatuko da. Zozketa eta gero egingo da izendapena, hurrenkeraren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko otsailaren 3a

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua
ITZIAR GONZALO DE ZUAZO